

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Forzaingoak 90. urtemuga bete du, eta "erreferentziazko zerbitzu publiko integrala" izatera iritsi da

Mikel Santamariak, foruzain eta kazetariak, oroitzapenezko liburua aurkeztu du

Asteartea, 2018.eko urriak 30

Forzaingoak gaur 90 urte bete ditu 1928ko urriaren 30ean sortu zenetik, eta jada "erreferentziazko zerbitzu publiko integral" bilakatu da, Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako kontseilariak Belosogoitiko egoitzan eguerdian ospatutako efemeridean adierazi duenez.

Nafarroako Foru Aldundiak zehatz-mehatz duela

90 urte erabaki zuen 5 motorista plaza sortzea, errepideko polizia artatzeko, zirkulazioa zaintzeko eta probintziako zergak ikuskatzeko. Erabakia lotuta zegoen Foru Ogasunaren jarduerarekin, eta, hortik haratago, Aldundiak aurreko mendetik bideak kontserbatzeko zuen jarduerarekin.

Antoniok, Joaquinek, Aureliok, Pedrok eta Pascasiok —lehen bost poliziak— gaur egun aurrera jarraitzen duen historiaren biderei hasiera eman zioten; egun, Forzaingoak 1.000 agente baino gehiago ditu Nafarroan zehar banatuta.

Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako Maria Jose Beaumont kontseilariak Forzaingoaren profesionaltasuna eta prestakuntza nabarmendu ditu. "Gaur egun, gure Forzaingoa trebatua eta profesionala da, Nafarroan segurtasun publikoaren erronkei aurre egiteko gai dena, eta, are garrantzitsuagoa, herritarrei zerbitzatzeko gogo izugarria duena. Zerbitzu publiko integrala eta erreferentziazkoa da".

Kontseilariak Forzaingoaren aldeko apustua egiten duela esan du, Nafarroan erreferentziazko zerbitzua izateagatik (bertan, Udaltzaingoak, Guardia Zibilak eta Polizia Nazionalak ere eskumenak dituzte), eta eremu ezberdinetako jarduera-datuak eman ditu. Esate baterako, 2013-2017 denboraldian, Nafarroan, Forzaingoak trafiko istripuen %70a artatu du, genero-indarkeriako kasuen %47a eta ikerketen %38a.



Santamaria, Beaumont eta Muñoz Forzaingoaren liburuen aurkezpenean.

Zabaltzea eta

heldutasuna

1964. urtean, egungo izena hartu zuen, Torcuato Muñoz Foruzaingoaren buruak adierazi duenez, “berrantolatu eta funtzio berriak hartzeagatik”; horrela, 1986ko lehen promoziotik, 2002an lurralde-mailan hedatzen hastera igaro zen: lehenik, Tuteran ireki zen komisaria, eta, ondoren, Zangoza, Tafalla, Lizarra, Elizondo eta Altsasukoak etorri ziren”.

Halaber, Torcuato Muñozek ondorengoa nabarmendu du: “laurogeita hamar urte hauetan, Foruzaingoa heldu egin da, eta erreferentzia bilakatu da, segurtasun publikoko eskumen guztiak erabat hartuaz, herritarrei zerbitzu integrala eskaintze aldera”.

Mikel Santamaria foruzainak, Informazioaren Zientzietan lizentziatuak, laurogeita hamar urteko historiako [oroitzapenezko liburua](#) aurkeztu du, eta honela deskribatu du: “pasarte eta zerbitzuen laburbilduma da, eta, batik bat, gure Foruzaingo maitea haien lanarekin sortu zuten 200 pertsona baino gehiagori egindako erreferentzia onomastikoa”.

Era berean, gogoratu du ez dela ezer idatzi erakundeari buruz, “Miguel Izuren doktorego-tesian sartutako erreferentzia batzuk kenduta”, eta bertaratutakoei dei egin die hamar urte barru erakundearen mendeurrena ospatzeko.

“90 años: Policía Foral de Navarra” liburuaren 2.000 ale atera dituzte hasteko, eta herritarren eskura egongo da azaroaren 5etik (astelehena) aurrera, Nafarroako Gobernuaren [Argitalpenen Funtsean](#), Navas de Tolosa kaleko 21ean, 15 €-ren truke.



Liburuaren egilea, kontseilaria eta Foruzaingoaren nagusia.